

Balio-proposamena

Idea hau ez da berria eta konpetentzia oso boteretsua da. Hala ere, guk proposatzen duguna guztiz berritzailea da. Gure enpresak eskaintzen dituen joku guztiak transgresoreak izango dira. Joku hauek, lehen aipatu dugun moduan, enpresa txikiak eta informatika zaleek sortzen dituzte, eta ia gehienak sortzaile handiak garatzera ausartzen ez diren gaiak ikertzen dituzte, adibidez: bortizkeria, beldurra, heriotza, etab. Beste plataformetan joku hauei ez diete inportantzia handirik ematen eta erosketa gutxi dauzkate. Gure ideiarekin egoera hau aldatu nahi dugu. Horregatik, jokuen 100% mota honetakoak izango dira. Sortzalileei erosketetan irabaziko dugun diruaren ehuneko altuagoa eskainiko diegu haien interesa erakartzeko. Horrela haientzako gure plataforman parte hartzea errentagarriagoa irudituko zaie.

Eskaintzen dugun beste ezaugarria ezberdin bat, hilerokotasun bat ordaintzen duten bezeroei, hileroko joku aleatorio berri bat ematea da.

Bezeroak esperientzia erosoagoa eduki dezaten gure plataforman, bi gauza gehituko diegu:

- **Lorpen sistema** bat implemantatu dugu, erabiltzaileak haien bideojokuen aurrerapenak hobeto jarraitu ditzaten.
- Haien lagunekin errazago komunikatzeko, erabiltzaileei **lagun sistema** bat ematen diegu.

